

2025

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria

Eusko Ikaskuntza - LABORAL Kutxa Gazte Saria 2019an abian jarri zen lehen aldiz. Helburua, Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien alorretan lanean ari diren gazte norbanako nahiz talde proiektuak saritzea da.

Bi motatakoak izan daitezke eskabideak:

- ◆ **Sorkuntza edo ikerketa proiektuak:** humanitateen, kultura, arteak –zentzu zabalenean ulertuta: musika, dantza, antzerkigintza, margogintza, eskulturagintza, literatura, ikus-entzunezkoak...– edo gizarte zientzien alorreko proposamenak gauzatzeko saria.
- ◆ **Goi-mailako erakundeetan egonaldiak:** humanitateen, kultura, arteak eta gizarte zientzien gaietako izaera zientifiko-akademikoa duten ikerketa edota lan artistikoak gauzatzeko goi mailako ikerketa erakundeetan egonaldiak gauzatzeko saria.

Alorrak

Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientziak

Hautagaitzak

Gazte norbanakoei edota taldeei zuzenduta dago. Egonaldien modalitatean, banaka bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

Hautagaiek, banakoa nahiz taldeko partaideak, 1990. urtetik aurrera jaiotakoak izan beharko dute.

Saria

6.000 euroko sari bakarria emango da.

Epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake, egoki iritziz gero.

Bete beharreko baldintzak

Saritutako pertsona edo taldea, emate ekitaldian parte-hartzea ezinbesteko baldintza izango da saria jasotzeko.

Saritutako lanaren ekarpen nagusiak bilduko duen artikulua bat idatzi beharko da *Revista Internacional de los Estudios Vascos, RIEVen* (CC 4.0 lizentziarekin) argitaratzeari begira.



Informazio gehiago:
Eusko Ikaskuntza
Bergara, 19. 20005 – Donostia
Tel. + 34 943 31 08 55

info@eusko-ikaskuntza.eus – www.eusko-ikaskuntza.eus



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Proposamenak originala izan beharko dira. Ezin izango da beste erakunde batean garatzen den proiekturik aurkeztu.

Saritutako lanaren lagin bat hurrengo urteko sari-banaketan aurkeztu beharko da.

Gauzatzeko epea

Saritutako proposamena ikerketa edo sorkuntza-proiektua bada, indarraldian dagoen urtean edo/eta hurrengoan gauzatu beharko da. Halaber, lana originala izan beharko da. Sariaren ordainketa saria ematen den egunean gauzatuko da.

Aldiz, saritutako proposamena ikerketa burutzeko egonaldia bada, 2025-2027 urte bitartean burutu beharko du irabazleak. Egonaldiaaren hasieran ordainduko da saria.

Saria jasotzeak aurkeztutako proposamena gauzatzeko betebeharra dakar berekin.

Irizpideak

Ondoko irizpide izango ditu epaimahaiak kontuan saria emateko orduan:

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> . Hautagaien curriculum vitae • Edukia sariaren helburuekin
lerrokatuta egotea • Izaera berritzaile izatea • Etorkizuneko proiektzioa
edukitzea • Originaltasuna • Gaurkotasuna • Euskararen erabilera | <ul style="list-style-type: none"> . Nazioarteko proiektzioa . Egingarritasuna • Aurkeztutako lanak –ahal den
neurrian– genero
ikuspuntua eta
hizkuntzaren erabilera ez
sexista kontuan izatea |
|---|---|

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

- Lanaren memoria: izenburua, laburpena, helburu zehatzen deskribapena, kronograma edo plangintza, helburu orokorrak (bost orrialde gehienez). Baldintza hau betetzen ez dituzten hautagaiak ez dira onartuak izango.
- Aurkezlearen Curriculum Vitae arautua. Taldearen kasuan, kide guztien CV. Taldean aurkeztu ezker arduradun bat izendatu beharko da.

Curriculum Vitae arautua Eusko Ikaskuntzaren webgunetik deskargatu daitekeen ereduari egokitu beharko zaio derrigorrez. Dokumentazioa euskarri informatikoan info@eusko-ikaskuntza.eus helbidera bidali behar da.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du oinarrietan zehatzen diren baldintzak, www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean daudenak, berariaz eta formalki onartzen direla.

Epeak

Proposamenak aurkezteko epea, **2025eko otsailaren 1etik martxoaren 31a** arte izango da. Epaimahaiaren erabakia Eusko Ikaskuntzaren webgunearen bitartez adieraziko da.

Epaimahaia

Epaimahaia Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientziak alorreko adituek osatuko dute.

Lanaren jabetza

Saritutako proposamena jabetza egile edo egileena izango da. Lan horren edozein zabalkundean sariaren bi erakunde bultzatzaileen aipamena egin behar da.

